

## N-I eta A-15 errepideak erabiltzeagatik kamioientzako kanon berria urtarrilaren 23an sartzen da indarrean



Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, urtarrilaren 17an, asteartea, egindako bileran, N-I eta A-15 errepideak erabiltzeagatik salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzako kanona kobratzen hasteko data finkatzea onartu zuen. Urtarrilaren 23an, astelehena, hasiko dira egiten dituzten joan-etorriak kobratzen bi errepide horietako arku eta banderoletan instalatutako irakurketa-sistemak gailu telematikoak (Via T) eta ibilgailuen matrikulak irakurriz. Kanona 0,22 €/ km izango da 3,5 tonatik gorako eta 12 tonatik beherako kamioientzat (Astunak 1) eta 0,28 €/ km 12 tona edo gehiagokoentzat (Astunak 2).

Era berean, N-I eta A-15 errepideetan ibilgailu astunentzako bidesari berriaren kobrantza indarrean sartzearekin batera, deskontu-plan berria bere osotasunean hedatzen da.

### Deskontuak

Salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat bi deskontu-kategoria gehitu ahal izango dira. Mugikortasun berria sustatzeko eta ingurumen-iraunkortasuna bultzatzeko, gutxiago kutsatzen duten motorrak dituzten ibilgailu astunek deskontu-mota berri bat izango dute. Zehazki, ibilgailu astun elektrikoek, gasezko motoredunek edo hidrogenozkoek % 25eko deskontua izango dute tarifaren gainean. EURO 6 kategoriako ibilgailuek % 20ko deskontua izango dute, eta EURO 5 kategoriakoek % 15ekoa. Deskontu-kategoria hori urtarrilean hasiko da aplikatzen N-I, A-15 eta A-636 errepideetan. Hala ere, AP-1 eta AP-8 autobideetan urritik aurrera izango da eraginkorra, baina beherapenak atzeraeragina



izango du BIDEGIk eskatutako dokumentazioa egiaztatzen eta baliozkotzen denetik eta ordaintzeko gailu telematikoa dutenentzat.

Horrez gain, mota horretako ibilgailuek, hala nola kamioiek edo garabiek, maiztasunaren araberako beherapenez gozatuko dute, % 13ko mugaraino, lurraldeko edukiera handiko errepide guztietan. Deskontu hori urritik aurrera ordainduko da.

### **Informazioa eta kudeaketak**

Deskontuei eta horiek lortzeko egin beharreko gestioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, BIDEGI Foru Sozietateak [www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus) webgunea, 943 105 106 telefonoa eta GI-20 errepidean, Aritzetan, Bezeroaren Arretarako Zerbitzuen bulegoak jartzen ditu interesdunen eskura, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara. Gestioei dagokienez, Aritzetako bulegoen ardura izango da garraio astunen kasuan egiaztatu beharko den dokumentazioa izapidetzea eta baliozkotzea, atzeraeraginezko onura lortzeko urrian gauzatuko diren deskontuak. Deskontuen dokumentazioa bulego horietan aurkez daiteke.

Zarautz, 2023-01-18

## El nuevo canon para camiones por el uso de la N-I y la A-15 entra en vigor el 23 de enero



El consejo de diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa celebrado el martes 17 de enero ha aprobado fijar la fecha de inicio del cobro del canon para vehículos pesados de transporte de mercancías por el uso de las carreteras N-I y A-15. Será el lunes 23 de enero cuando los sistemas de lectura instalados en los arcos y banderolas ubicadas en estas dos carreteras comiencen a cobrar los tránsitos que realicen mediante la lectura de los dispositivos telemáticos (Vía T) y de las matrículas de los vehículos. El canon será de 0,22 €/km para los camiones con peso superior a las 3,5 Tn e inferior a las 12 toneladas (Pesados 1) y de 0,28€/km para los de peso igual o superior a 12 Tn (Pesados 2).

Asimismo, con la entrada en vigor del cobro del nuevo peaje para vehículos pesados en la N-I y A-15 el nuevo plan de descuentos se despliega en su totalidad.

### Descuentos

Para los vehículos pesados de transporte de mercancías habrá dos categorías de descuento que se podrán sumar. Con el fin de fomentar la nueva movilidad y favorecer la sostenibilidad ambiental, los vehículos pesados con motores menos contaminantes disfrutarán de un nuevo tipo de descuento. Concretamente, los vehículos pesados eléctricos, de motor de gas o de hidrógeno se beneficiarán de un 25% de descuento sobre la tarifa. Los vehículos de categoría EURO 6 de un 20% y los de categoría EURO 5 de un 15% de descuento sobre la tarifa. Esta categoría de descuentos se empezará a aplicar en enero en las carreteras N-I, A-15 y A-636. Sin embargo, en las autopistas AP-1 y AP-8 será efectiva a partir de octubre, pero la rebaja tendrá carácter retroactivo



desde el momento en que se acredite y valide la documentación requerida por BIDEGI y se disponga de un dispositivo telemático de pago.

Adicionalmente, este tipo de vehículos como camiones o grúas disfrutarán también de la rebaja por frecuencia, hasta un límite de 13%, en todas las carreteras de alta capacidad del territorio. Este descuento se hará efectivo a partir de octubre.

### **Información y gestiones**

Para más información sobre los descuentos y las gestiones a realizar para su obtención, la sociedad foral BIDEGI pone a disposición de las personas interesadas la web [www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus), el teléfono 943 105 106 y también las oficinas del Servicio de Atención al Cliente en la GI-20 en Aritzeta, abiertas de 08:00 h. a 20:00 h. de lunes a viernes. En cuanto a las gestiones, las oficinas de Aritzeta se encargarán de la tramitación y validación de la documentación que en el caso de los transportes pesados deberá acreditarse para beneficiarse de manera retroactiva de los descuentos que se harán efectivos en octubre y cuya documentación ya se puede presentar en dichas oficinas.

Zarautz, 2023-01-18